

A. Zure ustez, zer arrazo nagusik azaltzen du garraio sektoretik eratorritako emisioen bilakaera?

Egungo ekonomia eta gizarte ereduaren egiturazko faktoreak.

- Ekonomiaren globalizazioa eta salgaien eta pertsonen nazioarteko garraioa areagotzea.
- Petrolioarekiko erabateko mendekotasuna garraiorako eta ekonomiarako.
- Autoa izatearen eta erabiltzearen kulturaren nagusitasuna. Familia unitate bakoitzeko auto gehiago erostea. Bizimodu sedentario baten ohiturak eta estiloa. Mugikortasunarekin lotutako autonomia pertsonala.
- Kontsumo ohiturak: adibidez, Internetez erostea eta horrekin lotutako karbono aztarna. Aisialdiarekin eta turismoarekin lotutako mugikortasuna areagotzea.

Lurralde eta hiri ereduaren egiturazko faktoreak.

- Gaitasun handiko bide azpiegiturak garatzea.
- Garraiatzeko moduak hobetuta, lekualdaketa gehiago eta distantzia handiagoko joan-etorriak sortzen dira.
- Hiriaren hedapena (adibidez, ekonomia eta industria jardueretarako industrialdeak hiri kanpoaldeetan).

Eragina duten beste aldagai batzuk:

- Ekonomiaren bilakaera.
- Mugitzeko erraztasuna.
- Aparkatzeko erraztasuna.
- Garraio publikoa izatea eta horren erosotasuna.
- Mugikortasun motorizatua erabiltzailearentzat duen kostu eraginkor handiagoa edo txikiagoa.

B. Zure ustez, nabarmen murriztu al daiteke autoen erabilera datozen 5-8 urteetan, hiri barruko eta hiri arteko joan etorrietan? Adierazi jarduteko aukera batzuk.

Sentikortzeko eta kontzientzia sortzeko jarduera iraunkorrak, baita hezkuntzaren arloan ere. Sentikortasuna osasunaren gaineko onurekin lotzea (airearen kalitatea, sedentariotasuna...).

Adostasun politikoa ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko neurriak hartzeko, eta une bakoitzean gobernuan dagoen taldeari kostu politikoa ez ekartzea.

Hainbat neurri uztartzea, hala nola:

- CO2 isuriak eta ibilgailu pribatuaren erabilera zigortuko dituen automobilaren arloko zerga sistema bat aplikatzea.
- Aparkalekuei buruzko politika: disuasio aparkalekuak aldirietan eta jatorrian, trena edo autobusa erabiltzeko aukerarekin batera.
- Autoa partekatzeko sistemak sustatzea.
- Ibilgailu pribatuaren benetako alternatiba irigarriak bultzatzea.
- Garraio publikoa hobetzea, batik bat trena, erosotasuna. Halaber, tarifen arloko neurriak ezartzea hori sustatzeko, EAEn garraiobide guztietarako titulu bakarra garatzen jarraitzea, baita RENFE ere.
- Bizikletaren erabilera erraztea eta bultzatzea, garraiobide gisa. Ereduzko ekintzak garatzea (esaterako, bizikleta erabiltzen duten pertsona "entzutetsuak" ikusgarri bihurtzea).
- Oinezkoentzako espazioak eta autoaren erabilera mugatuta duten espazioak areagotzea.
- Mugikortasun zerbitzu eta aukera guztiei buruzko berri gehiago helaraztea jendeari, baita oinezkoei buruzkoak ere, seinale egokiak jarritz eta IKTak erabiliz.

Marketineko ekintzak egitea joeren preskriptoreekin.

Hirian mugikortasuna erregulatzen duen araudia garatzea eta aplikatzea.

C.Ezagutzen duzu zure jarduera eremuari dagokion garraioari loturiko emisio kopurua?

Oro har, erantzuna da ez direla datuak ezagutzen, eta komenigarria izango litzatekeela horiek ezagutzea, arazoarekin sentsibilizatu ahal izateko, lanean nahiz maila pertsonalean.

Gainera, zenbait arlotan isuriak ezagutzea beharrezkoa izan beharko litzatekeela nabarmentzen da; adibidez turismoan, eskola garraioan...

Administrazioak datuak eduki ahal izatearen sentipena dago, baina ez dago sentipen hori sektore pribatu ez "espezializatuetan" ingurumenaren arloan.

Ingurumen Sailak Udal osoaren urteko isurien jarraipena egiten du. Informazio hori ez dute ezagutzen beste arloetako langileek.